

BIZITZAREN GARESTITZEA HEGO EUSKAL HERRIAN: ENERGIAREN AFERA

2022ko maiatza



>ekintza soziala

AURKIBIDEA

SARRERA	2
Azterketaren ideia nagusiak.....	3
1. KOIUNTURA ENERGETIKOA HEGO EUSKAL HERRIAN	5
1.1 Testuinguru geopolitikoak.....	6
1.2 Egoera soziala.....	9
2. ARAU-ALDAKETA BERRIAK ETA POLITIKA PUBLIKOAK	13
2.1 Espainiar Gobernuak harturiko neurriak.....	14
10/2022 Errege Lege Dekretua.....	14
6/2022 Errege Lege Dekretua.....	16
2.2 Hego Euskal Herrian hartutako neurriak.....	19
Nafarroako 2/2022 Legegintzako Foru Dekretua.....	20
Arabako Foru Aldundiaren 7/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua.....	21
Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2022 Foru Dekretu Arauemailea.....	21
Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1/2022 Foru Dekretua-Araua.....	22
3. EREITEN JARRAITZEKO BORROKAK	24
3.1 Herrien aldeko zerga sistema.....	24
3.2 Sektore elektrikoaren kontrol publiko eta soziala.....	26
3.3 Trantsizio energetikotik trantsizio ekosozialera.....	28
ONDORIOAK: ENERGIA GUZTIONTZAT!	31

SARRERA

Sistema kapitalistaren krisi sistemikoa bizi dugu. Urteak daramatzagu eredu hau heteropatriarkala, arrazista eta ekozida ere badela salatzen. Krisi honen baitan faktore asko daude elkarri lotuta eta elkarrekintzan, baina guztiek eragiten dute euskal langileen lan eta bizi-baldintzen okertze orokortuan.

Azken hilabeteetan, Hego Euskal Herrian (HEH) inflazio-indizeek azken 30 urteetako baliorik altuenak hartu dituzte. Urtea hasi denetik, elektrizitatearen prezioaren igoera bizkorra bizitzen ari gara eta oinarriko elikagaien prezioan ere igoera ematen ari da, hala nola ogiaren prezioan (%6,5 igo da), arrautzenez (%11 garestiago) eta olioarenean (%32 garestiago). Agerikoa da indarrean dagoen ereduan, Estatuak eta enpresa-oligopolioek sortutako krisiari ematen zaion erantzuna bizitzaren garestitze orokorra eta hortik eratortzen diren bazterketa sozialak direla.

Gauzak horrela, estrategia geopolitikoa zehatzen ondorioz, Euskal Herrian ere langile eta herri sektoreon eskubideen galera progresiboa ematen ari da; hasieran COVID19aren pandemiak eragindako produkzioaren eta nazioarteko merkataritzaren geldialdiaren ondorio gisa eta ondoren Ukrainako gerraren ondorio onargarria bezala saldu digutelarik. Testuinguru orokor honetan, energiaren afera adierazgarria da.

Eurostatek berriki egin duen txosten baten arabera, ia zoko lehen seihilekoaren itxieran. -urte honetan bizitzen ari garen prezioen igoeraren aurreko epea izanik ere,- euskal langileok Europar Batasunaren (EB) baitako elektrizitatearen bosgarren prezio garestienari egin behar izan diogu aurre (Alemania, Danimarka, Belgika eta Holandaren atzetik)¹. Errealitatea honen atzean nagusitzen den errelatoak **energia funtsezko ondasun komuna** dela eta pobrezia energetikoa biztanleriaren kalteberatasun-baldintza dela ezkutatu nahi digu ².

LABen ustez egoera ez da koiunturala eta ez da langile klasearen eros ahalmena murriztuko lukeen errenta-itun batekin konpontzen den soldata-arazo soil. Euskal Herri osoan pairatzen ari garen bizitzaren garestitzea, besteak beste Europatik inposaturiko sistema energetiko guztiz bidegabe eta harrapariaren nahiz burujabetza ukazioak eragindako egiturazko arazoan du abiapuntua.

Azterketa honen helburua, beraz, EHn lan eta bizi baldintza duinen aldeko borrokan aintzat hartzeko elementuak hobeto ulertzeko tresna bat eskaintzea da, zehazki energia burujabetzaren ikuspegitik, zeina sarritan ez dugun aski presente aldaketa normatiboak eta neurri politikoak aztertzerakoan. Hortaz, begirada zabaltzeko helburua ere badu.

Lan honek hiru atal ditu. Lehenengoak gas naturalaren eta pertsonok kontsumitutako elektrizitatearen arteko erlazioa erakutsi nahi du, mundu mailako kapitalaren mugimendu geopolitikoek gure Herrian egungo egoera energetikoari eragiten diotela nabarmenduz.

1 EUROSTAT. Electricity prices (including taxes) for household consumer, first half 2021. https://ec.europa.eu/eurostat/statistics-explained/index.php?title=Electricity_price_statistics#Electricity_prices_for_household_consumers#analytics-noticia:contenido-enlace

2 Egun ez dago erabateko adostasunik pobrezia energetikoaren azterketarako tresna egokienari dagokionez, adierazleak bi bloke nagusitan banatzen direlarik: objektiboak eta subjektiboak. Lehenak bizitokien datu kuantitatiboetan oinarritzen dira, bigarrenak elkarriketa pertsonaletan jasotako datu kualitatiboetan. Adierazle erabilienetako bat da “%10” bezala ezagutzen dena, adierazten duena bizitoki bat pobrezia energetiko egoeran aurkitzen dela baldin eta diru-sarreraren %10 baino gehiago faktura energetikoa ordaintzera bideratzen badu.

Bigarren atalean, energiarekin eta bizitzaren garestitzearen aferarekin lotutako politika publikoak eta arau-aldaketa nagusiak aztertzen dira, eta Espainiako Gobernuak 2022ko martxoan eta maiatzean argitaratutako bi Errege Lege-Dekretuak, eta Nafarroako Parlamentuak eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko aldundiek onartu dituzten dekretu eta araudiak lotzen dira.

Azkenik, hirugarren atalak, bidezko trantsizio ekosozial eta burujabe baterantz energiaren arloan identifikatzen ditugun erronka batzuk aipatzen dira, Euskal Herrian lan eta bizi baldintza duinak lortzeko ereiten jarraitu nahi ditugun apustuak aurkeztuz.

Dokumentu honek ez du behin betiko dokumentua, estankoa edo itxia izan nahi. Aitzitik, azterketa irekia eta bizia proposatzen dugu, inguratzen gaituen geopolitika ulertzeko proposamena gisa, eta Herri bezala ditugun erronkak identifikatuz alternatibak badaudela azpimarratzen duena. Hori da gure apustua, baita gure erronka ere.

Azterketaren ideia nagusiak:

1. *Euskal Herriko bizimoduaren garestitzea ez da koiunturazko zerbait, kapitalismoaren etengabeko berrantolaketaren isla da, herri-sektoreen eskubideen ukazioaren, lurraldeen arpilatzearen eta herrien desjabetzaren bidez indartzen dena.*
2. *Pandemiaren ondoren eta egungo guda testuinguruan, Espainiako gobernuak energiaren azken prezioa murrizteko hartutako estrategiak ez du esku hartzen oligopolio energetikoaren onuretan.*
3. *Enpresa-galeren konpentsazioa langileok gure gain hartzea aurreikusten duen politika berresten da. Zehazki, tarifa arautua duten pertsonak, industriak eta, ondoren, tarifa finkoen kontsumitzaileek hartuko dute beren gain.*
4. *Oinarria zergak murriztea eta langileak kargatzea da, eta horrek pribatizazioak eta murrizketak sustatzen jarraituko du Iruñeko eta Gasteizko gobernu autonomikoak jada desegiten ari diren zerbitzu publikoetan, bai subiranotasun faltagatik, bai borondate politiko faltagatik.*
5. *Lan-harremanen eta gizarte-segurantzaren arloko eskumenik ezak Madrilen erabakitako talka-planen ondorioei aurre egitera mugatzen gaitu, gero eta hedatuago dagoen prekarietateari eta pobretzeari aurre egiteko gai ez direla erakutsi duten gi zarte-prestazioen sistemen bidez.*
6. *LABek trantsizio ekosozialista eta feminista baten aldeko apustua egiten du, egungo eredu energetikoaren zutabeak errotik aldatuko dituena, sozialki bidegabea eta ingurumenaren aldetik harraparia, EHn subiranotasun energetikoaren eraikuntzan aurrera egiteko.*

Hitz gakoak: *bizitza garestitzea. Politika austerizidak. Oligopolioak. Arpilatzea. Espoliazioa. Nekropolitikoa. Mendekotasuna. Eskubideak urratzea. Trantsizio ekosoziala. Subiranotasun energetikoa.*

1. KOIUNTURA ENERGETIKOA HEGO EUSKAL HERRIAN

Hasteko, energia elektrikoaren horniduraren gehieneko prezioen eskaria eta eskaintzaren osaera arautzen duten arauak ulertu behar dira. Mekanismo makroekonomiko hauek politika publikoetan oligopolio energetikoen interesak lehenestea

eragiten dute. Horrela sektore publikoaren eta pribatuaren arteko aliantza maltzurra eraikitzen da, elektrizitatearen prezioa gasaren prezioarekin lotzen duena eta kapitalaren etekinak handitzea eragiten duena.

Izan ere, aurreko urtean azpimarratu genuen legez³, elektrizitatearen prezioa finkatzeko erabilitako sistema erregistratutako azken kilowatt/orduko prezioaren arabera zehazten da. Hau da, energia elektrikoa ezin denez biltegitatu, haren eguneroko ekoizpena kontsumo-aurreikuspenera doitu behar da.

Hala, hainbat sorkuntza-zentro daude, eta horien prezioak energia-iturriaren arabera aldatzen dira (berriztagarriak ziklo konbinatua baino merkeagoak dira, esaterako). Energia eskaria, normalean, lehenengo merkeenarekin eta gero garestienarekin estaltzen den arren, ordaintzen dugun amaierako prezioa beti da sartzen den azkenarena, eta beraz, iturri garestienarena.

EB osoan derrigorrezkoa den prezioak finkatzeko sistema honen ondorioz, gas naturala erabiliz elektrizitatea sortzen den bakoitzean, nahiz eta oso gutxi izan, honek zehazten du elektrizitate kontsumo osoaren prezioa: elektrizitate guztia gasarekin sorturikoaren prezioan ordaintzen da. Arrazoi honengatik sistema honi "marjinalista" deritza. Elektrizitatearen eta gasaren arteko baldintzazkotetasun-erlazioa ezartzen duen sistema da, eta ez da kasualitatea. Energia fosilak oinarri dituen sistema energetiko desorekatua eta espekulatzaila iraunarazten dituen eredu honek paradigma energetiko hegemonikoa du oinarri.

Gasari dagokionez, ezin dira ahaztu honen hornikuntzak dakartzan zailtasunak. Izan ere, gasaren garraio-logistikak likidotze-instalazioak, metano-ontziak eta birgasifikazio-plantak behar ditu eta horrek, muga inperialisten mundu honetan, gasaren azken prezioa nabarmen garestitzen du, langileok ordaintzen dugun elektrizitatearen azken prezioari eraginez.

Arrazoi honek eragiten du estrategikoa izatea lurretik gasbideekin konektatuta egotea, eta zentzu honetan Errusia izan da Europako gas-hornitzaile nagusietakoa, menpekotasun politiko, ekonomiko eta energetikorako dinamikak eraginez. Ez da zaila ikustea, beraz, energia ekoizteko/erauzteko, biltegitatzeko, banatzeko eta kontsumitzeko faseetan hartzen den lekuaren arabera, nazio bakoitzak mapa geopolitikoan negoziatzeko eta presioa egiteko duen gaitasuna desberdina izango dela.

Baliabide fosilak agortzen ari direla kontuan hartuta, horiek menperatzen eta kontrolatzen jarraitzeko nazioarteko gatazkek areagotuko direla aurreikus daiteke. Esan gabe doa Ukrainan lehertu den gerra-eskalada ezin dela ulertu logika honetan kokatu gabe.

Azken batean, gasaren menpekotasun energetikoan oinarritutako **sistema energetiko marjinalistak** ez dio aurre egiten nagusi den paradigma energetikoari. Kontrara, hura erreproduzitzeko baldintzak bermatzen ditu.

3 LAB. Energia-sektorearen kontrol publikoaren alde. Eskuragarri: <<https://www.infoadm.org/administrazioa-lab/8495-por-un-control-publico-del-sector-energetico>>

1.1 Testuinguru geopolitikoa

Burujabetza faltaren ondorioz, Euskal Herria Estatu espainiar eta frantsesaren politika energetikoen menpekoa da, eta hauen eredu sozio-produktiboa estuki lotua dago auzi energetikoa ikuspegi merkantilistatik eta menpekotasun eta dominazio terminotan lantzen duen EBren interesei.

Arrazoi horregatik, HEHko gas iturri nagusia azken urteetan Estatu espainiarrak inposatu du eta Aljeria izan da, Erreserba Estrategikoen Korporazioaren (CORES) arabera⁴. Baina 2021ean Magreb-Europa gasbidea itxi zenetik, kontsumitzen dugun gasak Ameriketako Estatu Batuetan du jatorria Gasaren Enpresa Nazionalaren gaurkoturiko datuen arabera (ENAGAS)⁵.

CORESen datuen arabera, Espainiar estatuak inportatzen duen gasaren %46,9 gasbideetatik inportatzen da, eta gainontzeko %53,1a Gas Natural Likuatua (GNL) da. Gas sarbide nagusiek Afrika iparraldearekin dute lotura, zehatzago, Cadiz eta Marokoren artean (Magreb-Europa) eta Almeria eta Aljeriaren artean (Medgaz), 2021ean LABek beste sindikatu eta mugimendu sozial batzuekin egindako txostena baten arabera⁶.

HEHra heltzen den gasaren jatorriaren aldaketa ez da erabaki tekniko-produktibo hutsa, potentzien eta hauen blokeen arteko aliantza politikekin lotura zuzena baitu. Azpimarratu behar da Maroko Ameriketako Estatu Batuen aliatu estrategikoa dela Afrika iparraldean, eta Aljeria eremu geografiko horretako Errusiaren aliatu historikoa izan dela.

Horregatik, 2022ko martxoaren 18an Amerikako Estatu Batuek (egun Espainiar estatura, eta beraz HEHra, heltzen den gasaren hornitzaile nagusiak) Marokoko Kanpo Arazoetako Ministerioak adierazitako Mendebaldeko Sahararentzat proposatzen duten plana proposamen "serioa, sinesgarria eta errealista" dela onartzeak, auzia energetikoaz gain lurralde arazo eta afera soziala dela ageriko uzten du⁷.

Mendebaldearen eta Errusiaren arteko liskar honetan Ameriketako Estatu Batuek munduko ordenaren menderatzea bermatu nahi dute ondasun komun eta naturalak kontrolatuz, horien artean baliabide energetikoak. Gasari dagokionean, funtsezkoa du beraz bere bi aliatuen (Estatu espainiarra eta Maroko) arteko harremanak sustatzea. Horregatik, ez da kasualitatea Estatu espainiarrak Sahararen autonomiari dagokionez bere posizioa aldatu izana justuki denbora tarte berean.

Azpimarratu beharra dago azken urteetan Saharar herriaren askapenari buruzko Estatu espainiarraren posizioa erreferendum bat ospatzeko NBEren akordioetan oinarritzen zela. Baina gasaren prezio igoeraren testuinguruan, eta beraz elektrizitatearenean ere, autodeterminazio erreferenduma baztertu eta Mendebaldeko Sahararen autonomiarako Marokoren proposamenari babesa adieraztera pasa da.

Interes energetiko estatubatuarrekin bat egiten duen mugimendu geopolitikook agerian uzten dute Espainiako estatuak ez duela erantzukizunik hartzen saharar herriaren autodeterminazio-prozesuarekiko **zor kolonialari** dagokionez. Horrez gain, agerian uzten du energia ekoizteko eta hornitzeko harremanek, desjabetzearen bidezko arpilatze kapitalista helburu, herrien subiranotasuna behin eta berriz ukatzen dutela.

4 CORES. Importaciones de gas natural por áreas geográficas y países. Azken gaurkotze data: 2022ko martxoaren 14a.

5 ENAGAS. Información General del Sistema Gasista. Anexo, orígenes suministro. Cobertura de la demanda. Azken gaurkotze data: 2022ko urtarrila.

6 Empleo y transición social. 2021. <https://www.ecologistasenaccion.org/174091/informe-empleo-y-transicion-ecosocial/>

7 Informazio gehiagorako, ikusi: <<https://www.diplomatie.ma/es/sahara-estados-unidos-reafirma-su-apoyo-la-iniciativa-marroqu%C3%AD-de-autonom%C3%ADa-como-una-soluci%C3%B3n-seria-cre%C3%A9ble-y-realista>>

Bestetik, Hego Euskal Herrira europar funtsen etorrerak erakutsi du nola inperioek euren artean negoziatzen dituzten estaturik gabeko nazioen eskubideak, trantsizio energetikorako ereduen arteko lehiaren bidez. Adibide argigarria dira botere korporatiboak zehazturiko Ekonomia Berreskuratzeko Proiektu Estrategikoak deiturikoak, gaztelerazko PERTE siglekin ezagunagoak.

Proiektu horiek Europatik blindatzen dira bereziki, eta COVID19ak eragindako pandemiak areagotutako krisi sozio-sanitarioaren berehalako eraginak (teorian) arintzeko EBk diseinatutako «Nex Generation EB» larrialdi-planaren bidez, berretsi egiten da zer den lehentasunezkoztat jotzen dena eta zein eredu sozio-ekonomiko garatu eta babestu nahi den.

Kontakizun ofizialak plan hau pandemiaren eraginei aurre egiteko eta sistema global "kolaboratiboago" eta "erresilienteago" baten aldeko susperraldi ekonomikorako programa gisa aurkezten duen bitartean, aurreko urtean salatu genuen bezala, gure lurraldean korporazioen eta transnazionalen beste erreskate-programa baten gauzatzean datza⁸.

Elite ekonomikoen erauzteko eta espekulaziorako gaitasuna zabaltzea bilatzen duen egitasmoa da aurrean duguna beraz, negozioarako sektore espezifiko eta espezializatu berriak zabaldu nahi dituen diru publiko kantitate handiak hidrogenoa, giga-faktoriak, adimen artifiziala edota digitalizaziora bideratuz. Europar Batasunak sustatzen du programa hau, Europako estatuen eta gobernu autonomikoen babesarekin, EAeko exekutiboak eta Nafarroako Gobernua barne. Funtsak hiru plan handiren bidez eskuratzen dira gurean: «España Puede», «Euskadi Next» eta «una visión para Navarra».

Adibide gisa, Euskadi Next (2021-2026) planak 5.702 milioi euro erakarri nahi ditu %37 trantsizio ekologikora eta %20 trantsizio digitalera bideratzea planteatuz, hauetan sartzen dituelarik Abiadura Handiko Trena, edota Lemoizko zentral nuklear zaharrean ezartzeko akuikultura proiektua. Plan honek lehenetsitako 8 ardatzen artean %35 industriara, garraiora, eraikuntzara, berrikuntzara, digitalizaziora eta energiara bideratzea jasotzen du, %13 osasungintzara eta zaintzara, %2,4a hezkuntzara eta %9 ekonomia zirkularra.

Finean, **europar funtsak** jasotzeko plan hauek, kapitalismoaren krisi sistemikoek gogorren kolpaturiko sektore sozial eta produktiboak berrindartzea baino, zorra sortzea bilatzen dute ondoren menpekotasun eta austeritate politikak garatzeko (lan erreforma eta pentsio erreforma). Era berean, osasungintzara eta zaintzara zuzenduriko proiektuen kasuan, zerbitzu publikoak indartu beharrean negozio eremu izaeran sakontzen dute, merkantilizatuz eta oinarritzko eskubideak murriztuz.

Agertoki konplexu honetan Ukrainako inbasioaren ondorioz Errusiari ezarritako zigorrak eragindako ondorioak gehitu beharko lirake, hala nola, atzerriko dibisetara sartzeko eragozteko, billeteak eurotan hornitzea debekatzea edo Errusiako banku garrantzitsu batzuk SWIFT nazioarteko ordainketa-sistematik deskonektatzea. Dominazioan oinarrituriko mundu-sistemari eusteko beharrezkoak diren ondasun komunak kontrolatzeko estrategia berriak eratzen dituzten nazioarteko mugimenduei buruz ari gara, beraz.

Egungo geopolitikari so, kapitalismo berdea deiturikoaren hedatzea ere ikus daiteke, finantziarizatua, eta lurralde ezberdinetako gatazka sozialetan eragiten duena. Honek, eredu sozioekonomiko baztertzaila sakontzeaz gain, epe laburreko etekinak sortzen dituzten sektoreak indartzen ditu nahiz eta planetaren muga biofisikoen eta kolapsoaren ikuspegitik sostengaezinak diren. Esaterako, hidrogeno berdea.

8 Informazio gehiago: <<https://www.lab.eus/langileon-interesak-lehen-lerroan-jarriko-dituen-trantsizioa-aldarrikatu-dugu/>>

HEHn, eta Euskal Herriaren osotasunean, nagusi den eredu energetikoa inperioen eta korporazio transnazionalen artean negoziatutako ereduaren menpe egoteak, beraz, egungo produkzio-eredu kapitalista eta inperialistaren egiturazko mugak kolokan jartzeko gai den trantsizio energetiko zabalago baten eraikuntza oztopatzen du; hain zuzen beharrezkoa zaigun Trantsizio ekosozialista eta feminista, zeinak subiranotasun energetikoa herrien eskubideen defentsarekin lotzen duen.

1.2 Egoera soziala

Energiaren prezioaren igoerak HEHn sortutako egoera sozialak langileen bizitzako hainbat esparrutan eragiten du, eta ondorioen sakontasuna aurreikusteko oraindik goiz den arren, elkarrekin harremana duten elementu aipagarri batzuk ikus ditzakegu.

Maila makroekonomikoan, hidrokarburoen prezioaren igoerak garraiolarien egun batzuetako grebak ekarri zituen, errepideak blokeatuz eta ondorioz arrantzarena bezalako sektoreak geldiaraziz eta elikagaien prezioa handituz. Horrez gain, inflazioa % 9,8an zegoen martxoan, 35 urteko indizearik altuena Estatistikako Institutu Nazionalaren arabera⁹. Honek ekarri zuen pandemiaren hasieran eman zen antzeko gizarte-beldurra hedatzea, ekilore-olioa edo komuneko papera bezalako oinarritzko produktuen metaketa bezalakoetan ikusi izan dena.

Ikusten ari garen beldur soziala ekologikoki harraparia eta ekonomikoki eta sozialki bidegabea den eredu batek sortutako segurtasunik ezaren eta bazterketaren sentipenetik sortua da. "Sakeoari EZ! Derecho a la Energía"¹⁰ plataformaren arabera, egun EAEn 70.000 familiatik gora daude pobrezia energetiko egoeran. Aldi berean, pandemian zehar, fakturazio handieneko enpresen rankinga ia erabat betetzen du Iberdrolak bere filialekin, enpresek Merkataritza Erregistroan aurkezturiko datuen arabera¹¹. Petróleos del Norte SA, Petronor izenarekin ezagunagoa, hirugarren postuan dago fakturazio handiena duten 10 enpresen rankingean. Bi enpresa hauek Bizkaian daude.

Euskal Herriko langile klaseak bizi duen **pobrezia energetikoaren** beste adierazle bat energia kontsumoaren datuekin loturik ikus genezake. Energiaren Euskal Erakundearen azken datuak aztertuz ikus daiteke 2022ko urtarrileko energia elektrikoaren kontsumoa %12,2 jaitsi zela 2021eko urtarrilarekin alderatuz, sektore guztietan jaitsierak eman zirelarik: industrian (-13%), eta siderurgian (-22,1), eraikuntzan (-9,9%), etxeko kontsumoan (-17,6%), eta zerbitzuetan (-1,8%)¹².

Bestetik, EAEn gas naturalaren kontsumoa osotara %33,9 hazi zen 2022ko urtarrilean 2021eko urtarrilarekin alderatuz, Energiaren Euskal Erakundearen arabera energia elektrikoa gasetik abiatuz sortzen duten zentral termikoen kontsumo igoera dela eta. Zehazki, zentral termikoetako kontsumoa %258,3 igo zen, artean Zerbitzuetako kontsumoa %5,2 eta etxeko kontsumoa (berogailurako erabiltzen dena nagusiki) %5,8 jaitsi zelarik. Industrian ere %3,8ko jaitsiera eman zen kontsumoan. Nafarroan 2022ko urtarrileko kontsumo elektrikoa %4,69 jaitsi zen aurreko epealdiarekin alderatuz, baina otsailean %5,17ko igoera izan zuen, Nafarroako Gobernuaren datuen arabera.

Datu horien azterketa labur batek erakusten du, alde batetik, HEHko gas-kontsumoaren gorakada handia dela, eta bestetik, etxeetako kontsumo elektrikoa, energia-modalitate guztietan, gehien murrizten denetako bat dela. Ziurrenik, energiaren prezioen igoerak eta bizitzaren garestitze orokortuak eragin dute langile-klaseak neguan elikatzearen, alokairua ordaintzearen eta berogailua piztearen artean hautatu behar izatea. Aukera gogor horrek energia gutxi batzuen pribilegio bihurtzen du.

9 INE. Índice de precios de consumo (IPC). Indicador adelantado. 2022ko martxoan. Eskuragarri hemen: <https://www.ine.es/dyngs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736176802&menu=ultiDatos&idp=1254735976607>

10 Informazio gehiago hemen: <<https://www.ekologistakmartxan.org/eu/2022/02/17/sakeoari-ez-derecho-a-la-energia/>>

11 Informazio gehiago hemen: <<https://ranking-empresas.economista.es/faqs.html>>

12 EEE. Energia egoeraren behatokia, 2022ko otsaila. Eskuragarri: <<https://eve.eus/Conoce-la-Energia/La-energia-en-Euskadi/Observatorio-de-coiuntura-energetica/2022/Febrero-2022?lang=eu-es>>

Era berean, Iberdrolak 3.900 milioi euro irabazi zituen 2021ean, Endesak 1.900 milioi euro¹³, Naturgyk 1.214 milioi euro, BPK 6.615 milioi euro, Repsolek 2.499 milioi euro eta Cepsak 661 milioi euro¹⁴.

Langileentzako hil ala biziko erabakiak eta kapitalarentzako onurak, horretaz ari gara, maila makropolitikoan ere itzulpena duen errealitateaz hain zuzen. HEHaren (eta oro har Euskal Herriaren) burujabetza energetiko faltak, pobrezia eta prekaritatearen zabaltearekin batera, muturreko beste dimentsio bat erakusten du: Bizitzia merezi duten bizitzak eta hiltzen uzten direnak bereiztea.

Enpleguarekin lotutako heriotzei dagokienez, 2021ean HEHn gutxienez 68 langile hil dira lanean edo horren ondorioz, eta 2022an jada 30 langile hil dira¹⁵. Heriotza hauetatik gehienak lan baldintza prekarioen eta ikuskaritza faltaren ondorio dira, eta normalean egoera zaurgarrienak bizi dituzten langileak izaten dira erailak.

Hori gutxi balitz HEHko langileen bizitzaren aurkako eraso esfera ezkuagoan ere agertzen da, energia eta etxebizitzarako eskubidea modu arriskutsuan gurutzatzen baitira. Etxegabete gero eta gehiago gauzatzea eta azken aldiak salatzen ari garen etxerik gabeko pertsonen kopuruak gora egitea errealitate horren adibide dira. Maiatzaren lehenengo astean, bi pertsona aurkitu zituzten hilda Bilbon, etxebizitza duin eta eskuragarria izateko aukera bermatzen ez zitzaielako¹⁶.

Hilik agertu den pertsonetako baten ezaugarriak erreparatuz, zabalduko informazioaren arabera jatorri atzeritarreko gaztea zen, kalean lo egiten zuen eta prekaritatea eta pobrezia egoeran zegoen. Ez da kasualitatea eta ez da gertakari isolatua, ez baita lehen aldia. Gertatutakoak agerian uzten du bizitza garestitzearen aurrean EHko gizarte-politiken, besteak beste etxebizitza eta harrera politiken, ez-nahikotasuna ea hipokrisia.

Lan baldintza negargarrien ondorioz langileak hiltzen jarraitzea, kalean dauden pertsonak zabor-erakundeetan babestu behar izatea gauzez hotzogatik ez hiltzeko, edo mugak zeharkatzen dituzten pertsonak Bidasoako uretan itota hiltzea ez dira sistemaren akatsak. Ezta, begirada Euskal Herri osora zabalduz, maiatzean Miarrizten gertaturiko etxegabe pobreen aurkako gorroto-erasoa. Eraso horiek kapitalismoak bultzaturiko **nekropolitikaren** parte dira, eta energiarena beste lehia eta borroka eremu bat da.

Testuinguru sozial kritiko honen aurrean, EHko mugimendu feministak bizitzaren aurkako eredu hau eraldatzeko eta **trantsizio ekosoziala** planteatzeko gai izango den zaintzarako euskal sistema publiko komunitarioa aldarrikatzen duen bitartean, EBko Kanpo Politikarako Goi Ordezkariek klima-kolapsoaren erantzukizuna langileen bizkar jartzen zuen, eta bakoitzak bere etxean berokuntza jaistea eskatzen zuen txirotasunaren irtenbide egoki gisa. Era berean, Ignacio Sanchez Galán oligarkak lotsarik gabe eta inpunitate osoz tonto deitzen ziren argindarraren tarifa araututako sisteman duten pertsonen.

13 ENDESA. Eskuragarri: <<https://www.endesa.com/es/prensa/sala-de-prensa/noticias/informacion-economica/endesa-logra-beneficio-ordinario-neto-1902-millones-2021>>

14 Informazio gehiago: <<https://www.publico.es/economia/resultados-electricas-ganan-6500-millones-2021-precio-luz-duplica-hogares-empresas.html>>

15 Informazio gehiago: <<https://labehu.eus/blog/apirilak-28-lan-istripu-gehiagorik-ez/>>

16 Informazio gehiagorako: <<https://www.lab.eus/euren-gorpuak-zabalgabin-eta-casilda-parkean-aurkitu-dituzten-bi-pertsonen-heriotza-nekropolitikaren-ondorioa-dela-salatzen-dugu/>>

Energia eskuragarria izateko baldintza sozialak, beraz, estatuen eta kapitalaren arteko aliantza dramatiko eta zitalak zehazten ditu. Aldi berean, badirudi luxuzko artikulu gero eta baztertzailagoa bihurtu nahi dutela energia, funtsezko ondasun komuna dela ezkutatzuz, eta beraz, sarbide, kontrol eta kudeaketa publiko-sozial subiranokoa izan beharko lukeela ukatuz.

2. ARAU-ALDAKETA BERRIAK ETA POLITIKA PUBLIKOAK

Mundu mailako kapitalismoaren krisi sistemikoaren sakontzea eman bada ere, nazio-estatuak beren nazioarteko harremanen esparrua baliatzen dute gaur egun nagusi den energia-ereduaren oinarriak birnegoziatzeko. Mundua inperioen artean banatzen duen egungo ereduari eusteko marko funtzional bat, non euskal langile-klasea subjektu politiko gisa ukatzen den eta beraz, bere erabakitzeko eta eragiteko ahalmena mugatua izanik egin behar dien aurre egungo ereduaren ondorioei.

Azken arau-aldaketek langileen bizi-baldintzetan eta lan-baldintzetan nola eragiten duten ulertzeko, garrantzitsua da azken gertaerak errebasatzea. Norabide honetan, 2022ko martxoaren 24an eta 25ean egindako Kontseilu Europarraren bileran, espainiar Gobernuak Presidente den Pedro Sánchek EBko energia-merkatuan aldaketa bat onar zedin saiatu zen. Aldaketa proposamen horrek, alde batetik, gasaren prezioa elektrizitatearen prezioetik deslotzea jasotzen zuen, eta bestetik, estatu kideei azken horren prezioari mugak ezartzeko aukera ematea.

EBk ez zuen desbinkulazio-proposamen hori onartu baina, eta horren ordezt Espainiako Estatuak eta Portugalek, salbuespen gisa eta aldi baterako, elektrizitatea sortzeko erabiltzen den gasaren prezioari mugak ezartzeko aukera baino ez zuen eman. Erabaki horri **“Iberiar salbuespena”** deitu zaio, izan ere, bi estatuak elektrizitatearen prezio altuak kudeatzeko tratu berezia jasotzeko beharrari egiten dio erreferentzia, Europako gainerako herrialdeekin duten interkonexio elektrikoaren maila baxuaren ondorioz.

Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea bi estatuak ezin dutela energia-ereduaren erreforma zuzenean eta autonomiaz aplikatu, gobernu horiekin lotutako komunikabideetan zabal-zabal jakitera eman den bezala. Kapitalismoaren markoan nazioarteko harremanak markatzen dituen inperioen arteko mendekotasunaren eta mesede-trukearen logika horretan, beharrezkoa da bi estatuak proposamen formal bat aurkeztea Europako Batzordeari, zeinak, baimena eman behar baitu.

Hau esanda, jarraian 10/2000 Errege Lege Dekretuan, 6/2000 Errege Lege Dekretuan eta 2/2022 (Nafarroa), 7/2022 (Araba), 1/2022 (Bizkaia) eta 2/2022 (Gipuzkoa) Foru Dekretuetan planteatutako elementu nagusietako batzuk aztertuko ditugu. Araudi desberdinak dira, oso berriak eta oraindik dinamismoan daudenak, eskumen maila ezberdinak dituzten administrazioaren esparruak aurkeztuak. Hala eta guztiz ere, elkarren artean lotuta daude eta nabarmenki baldintzatzen dute HEHko ondasun energetikoen prezioa eta eskuragarritasuna, baita gure lurraldeko lan- eta bizi-baldintzei lotutako eskubideen benetako gauzatzea ere.

2.1 Espainiar Gobernuak harturiko neurriak

10/2022 Errege Lege Dekretua

Azken hilabeteetan, Madril eta Lisboako gobernuak proposamen bateratu bat landu dute Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plana zabaltzeko. Espainiar Estatuaren kasuan, hasiera batean plan hori 6/2022 Errege Lege Dekretuan aurkezten da, batez ere handizkako merkatuan elektrizitatearen kostua murrizteko ekoizpen-kostuak doitzeko mekanismo bati loturik.

Gasaren erreferentzia-prezio bat ezartzeko onarpena lortzeko, Espainiako Estatuak Europako Batzordean bermatu behar izan du neurri hau ez-ohikoa edo apartekoa izango dela, ez diola eragingo Europako merkatuari, eta gasaren prezioaren mugatzearen aurrean elektrizitatea sortzen duten ziklo konbinatuko zentraleri konpentsazioak emango dizkiela.

Hasieran, elektrizitatea sortzeko baliatzen zen gasaren gehieneko prezioa 30 €/MWh izango zela jakinarazi zen, argiaren handizkako merkatua lasaitzeko helburuarekin. Gasaren preziorako 30 €/MWh muga hainbat gizarte-sektorek aldarrikatutako indizea da, baina kontuan hartuta iaz oligopolio elektrikoek 50 €/MWh-ko muga aldarrikatzen zutela, argi zegoen proposamen horrek erresistentziak izango zituela Bruselan.

Apirilaren amaieran, hilabete bateko itxaronaldiaren ondoren, bi gobernuek iragarri zuten Europako Batzordearekin "akordio politiko" bat lortu zutela, gasaren prezioari 40 €/MWh hasierako muga bat aplikatzetik abiatzen zena hamabi hilabetez ia 50 €/MWh-tan egonkortzeko. Maiatzaren hasieran, Espainiako eta Portugalgo gobernuek neurri hori berretsi zuten, Estatuarte lankidetzaren estua ez ezik, beren politikak oligopolioaren interesen ildoan eta herrien eskubideen kalterako lan egiten dutela argi eta garbi erakutsiz.

Azkenik, 2022ko maiatzaren 13an 10/2022 Errege Lege Dekretua onartu zen¹⁷, honako neurriak aurreikusten dituenak, besteren artean:

- Ekoizpen-kostuak doitzeko mekanismoa, aldi baterakoa, handizkako merkatuan elektrizitatearen prezioa murrizteko.
- Gasaren erreferentziako prezioa aldakorra izango da: lehenengo sei hilabeteetan, 40 €/MWh-ko balioetik hasiko da, eta, hurrengo hilabeteetan, 5 €/MWh-ko igoera mailakatua izango du, azken hilabeteetan 70 €/MWh-ko baliora iritsi arte.
- Kongestio-errenten¹⁸ erabilera Frantziako estatuarekiko interkonexioan konpentsazio-mekanismoaren kostu osoa ordaintzeko.

Espainiar gobernuaren estrategiak ez du beraz oligopolio energetikoaren irabazi ekonomikoetan esku hartzen langileok ordaintzen dugun argindarraren amaierako prezioa murrizteko. Kontrara, **galera enpresarialen konpentsaziorako politika** bideratu nahi du, beste behin ere langileon bizkar ezarriz kostuak.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, gas-ziklo konbinatuko zentralen benetako kostua ordaintzeko doikuntza merkaturatzaileek finantzatzeko dute, azken bezeroei helaraziko dietelarik. Zehazki, prezioaren beherakada koiunturalaren onurak jasoko dituzten kontsumitzaileek hartuko dute beren gain: araututako tarifari atxikitako pertsonak, industriak eta, ondoren, tarifa finkoen kontsumitzaileak. Era berean, neurria indarrean dagoen urtean zehar merkatu libreko kontratuak berri beharra ezartzen du.

Nahiz eta hasiera batean mekanismoa kontsumitzaileek eskaera osoa ordaintzeko diseinatu zen, Portugalen, non erabiltzaileen %95ek epeko estaldura-kontratuak dituzten, kontratu mota horiek kanpoan utzi dira berri diren arte. Horrek esan nahi du Portugalgo kontsumitzaileek ez dutela ezer ordainduko, HEHn ez bezala, non langileak garen sektore elektrikoaren hasierako galerak ordainduko ditugunak.

Azkenik, mekanismoaren beste elementu berritzaile bat da Espainiako eta Frantziako estatuarte lankidetzaren interkonexioan azaleratzen diren **kongestio-errenta** gehigarriak erabiltzea lehen aipatutako doikuntzaren guztizko kostua murrizteko.

¹⁷ Informazio gehiagorako, ikusi: <https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2022-7843>

¹⁸ Kongestio-errentak honela kalkulatu dira: elkartrukaturiko energia kantitatea biderkatuz bi zonaldeetako prezio diferentziagatik.

Kongestio-errentak Frantziako estatuarekin elektrizitatea trukatzean sortzen dira, eta mugako energiarekiko eta prezio-aldearekiko proportzionalak dira.

Konpentsazio-mekanismoak merkatu iberikoko prezioa Frantziakoa baino nabarmen baxuagoa izatea eragingo duenez, 10/2022 Errege Lege Dekretuak salbuespenezko bide bat gaitzen du interkonexioan kongestio-errenta gehigarriak erabili ahal izateko, doikuntzaren guztizko kostuaren zati bat ordaintzeko. Hortaz, estrategia honek Ipar Euskal Herriko lan eta bizi baldintzetan ere eragina izango du.

6/2022 Errege Lege Dekretua

Martxoaren 29an Espainiako gobernuak 6/2022 Errege Lege Dekretua onartu zuen, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan bat aurreikusten duena. Talka-plan hau 5 ardatzetan banatzen da: familiak, ehun enpresariala, garraioak, zibersegurtasuna eta energia. HEHn bizitzaren erreproduktzioarako esanguratsutzat jo ditugunetan jarriko dugu arreta.

Elektrizitatea, gasa eta erregaiak

- 10 kW-tik beherako potentzia kontratatua duten kontsumitzaileentzat BEZaren %10eko murrizketa, elektrizitatea sortzeko zergaren %7ko etetea eta elektrizitatearen zerga bereziaren %0,5eko murrizketa mantentzen dira ekainaren 30era arte¹⁹.
- Gasaren prezioaren mugatzea luzatzea, elektrizitate-merkatuko aparteko onurak (beneficios extraordinarios) murrizteko, eta neurri honen aplikazio-esparrua zabaltzea araua sartu zenetik epe eta prezio finkoan kontratatutako energiari, prezio hori 67 €/Mwh baino handiagoa bada.
- Elektrizitatea garraiatzeko eta banatzeko sareak erabiltzeagatik industria elektro-intentsiboak ordaintzen dituen bidesarien %80a murriztea.
- Erregaiaren litro bakoitzeko prezioa 20 zentimo jaistea.

Aurrekariak kontuan hartzen baditugu, zergak murriztean eta langileak kargatzean oinarritzen den Espainiako gobernuak diseinatutako estrategiak zerbitzu publikoen pribatizazioak eta murrizketak ekarriko ditu ziur asko, jada desegiten ari direnak Iruñea eta Gasteizko gobernu autonomikoen agindupean.

Energiaren prezioak kontrolatuzetik urrun, neurri hauek HEH **oligopolio energetikoak** kontrolaturiko merkatuekiko menpekotasun egoeran kokatzen ditu. Langileok argindarraren fakturak murrizketa ikusiko dugu, baina koiunturala izango da eta inbertsio publikoa enpresa elektrikoari ordaintzeko erabiltzearen kontura egingo dute. Gainera, ez da esku hartzen HEHko milaka familiaren energia-pobretzearen kontura sortutako milioikako mozkinetan; familia horien energia elektriko eskuratzeko eta oinarrizko bizi-premiei erantzuteko aukerak urratzen diren artean.

Neurri horien aurrean, berriro diogu oligopolio energetikoen irabaziak ikutu gabe eta galeren konpentsazioaren erantzukizuna langileon bizkarren gain utzita egitea proposatzen den faktura murrizketaren aurka egiten duela LABek. Era berean, erregai fosilei (erregaien diru-laguntzan agerikoa dena) eta, azken batean, kapital transnazionalari (erregai fosil horiek kontrolatu, kudeatu eta merkaturatzen dituen) diru publikoa emateko mekanismoa baztertzen dugu.

Prestazio sozialak

- Gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden kolektiboari bonu sozial elektrikoan %60ko deskontua egiteko luzapena, eta %70ekoa kalteberatasun larriko egoeran daudenentzat.
- Gizarte-bonu elektrikoaren onuradun izan ahalko dira, familiez gain, etxebizitza berean bizi diren pertsonak ere, eta

¹⁹ Neurri gehien epeak luzatuta agertzen dira dokumentu honetan, eta 2022ko ekainaren 30eko epemuga berriari dagozkio.

automatikoki berrituko da datozen bi urteetan. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren onuradunak automatikoki sartuko dira²⁰

- Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren %15eko errebalorizazioa 2022ko ekainera arte.

Gizarte-prestazioei dagokienez, zehazki BGDri (IMV) dagokionez, neurri horiek gutxi hobetuko dute euskal langileen bizitza. BGDa DSBEaren eta DSBAren azpitik egongo da oraindik ere, eta gainera prestazio horiek murrizketa larriak izan dituzte azken hamarkadan, prestazio horiek eskuratzeko baldintzak gogortzearekin batera. 2012an aurrekontu-lege bidez egondako %7ko murrizketa gogoratzea baino ez dago, zeina ez den berriz berreskuratu. Baita ez dela LGSri dagokion igoera aplikatu, legeak hala zehazten badu ere.

Ildo horretan, 2018an Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, non euskal gehiengo sindikalak eta hainbat eragile sozialek parte hartzen dugun, Herri Ekimen Legegile (HEL) bat bultzatu genuen, urrats garrantzitsua izango litzatekeena babes sozialeko sistemen eskasiaren aurrean. 51.000 sinadura baino gehiago jaso eta aurkeztu ziren arren, Eusko Legebiltzarrak kontrako iritzia adierazi zuen EAJ, PSE eta PPren aurkako botoekin.

EAJren kasuan ikus daiteke gainera nola hainbat goi-kargu ohi oligopolio energetikoa osatzen duten enpresetan dauden kokatuta. Adibidez, Repsolen kontseilari delegatua den Josu Jon Imaz EAJren presidente ohi da, edo Juan Mari Atutxa EAJko kidea eta Eusko Legebiltzarreko presidente ohi Iberdrolan dago orain. Repsolen filiala den Petronorrek ere, EAJrekin loturiko politikari asko hartzen ditu bere baitan²¹.

Beraz, eztabaida honetan funtsezkoa da agerian uztea lan-harremanen eta gizarte-segurantzaren arloko eskumen falta dela eta, Madrilen erabakitako talka-planen, lan-erreformen eta pentsio-murrizketen ondorioei aurre egin behar diegula, DSBEren eta Bermaturiko Errentan oinarritutako gizarte-babeseko sistema gero eta murriztuago baten bitartez.

Gero eta hedatuago dauden prekarietateari eta pobretzeari aurre egiteko nahikoa ez den prestazio sozialen sistema bat dugu beraz. Zentzu honetan, eta EAEren kasuan bereziki, berriki aurkeztu den diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema moldatzeko lege-aurreproiektuak ez dirudi egiturazko aldaketarik dakarrenik, agerikoa denean hauen beharrezkotasuna.

Etxebizitza

- Etxebizitzen alokairu-kontratuen errentaren urteko eguneratzeari aparteko muga ezartzea²².

Araudian xedatutakoaren arabera neurri honen helburua da, aldean arteko akordiorik ezean, alokairuaren eguneratzean Kontsumoko Prezioen Indizea (KPI) aplikatzea saihestea, askotan gertatzen zen bezala, muga gisa Lehiakortasuna Bermatzeko Indizea (LBI) kokatzean, zeina %2koa den²³. Muga hori automatikoa da edukitzaile-handien kasuan, eta maizterekin negoziatu beharko da jabe txikien kasuan, handiagoa izan daitekelarik bi alderdiak ados jartzen badira.

²⁰ Gainera, gasaren faktura hiruhileko bakoitzeko %5 baino gehiago handitzeko debekua luzatzen zaie azken errekurtsoko tarifa kontratatuta duten kontsumitzaileei.

²¹ Beste adibide batzuk aipatuz: Mario Fernándezek, EAJk Eusko Jaurlaritzako legebiltzarkide ohi eta Carlos Garaikoetxearekin Eusko Jaurlaritzako presidenteordea izan zenak, Repsoleko kontseilari kargua utzi behar izan zuen Kutxabank kasuagatik kondenatua izan ondoren; Kutxabankeko presidentea izan zen. Joseba Aurrekoetxea, EAJko legebiltzarkide ohi, Enagaseko, Bahía Bizkaia Gas eta Zeitiako kontseilari ohi da, eta gaur egun, Bahía de Bizkaia Fotovoltaika-ko lehendakaria da. Juan Diego, Euskal Osasun Publikoko Zerbitzuko zuzendaritza nagusikoa izandakoa, Iberdrolan dago egun, besteak beste.

²² Kontrakoa adostu ezean, ezin izango du gainditu Lehiakortasuna Bermatzeko Indizearen (LBI) aldaketa, % 2an dagoena ekainaren 30era arte. Errentatzailea edukitzaile-handia bada, ez da inoiz % 2tik gorakoa izango.

²³ Indize hori 2013an sortu zen eta prezioak berrikusteko tasa bat ezartzen du, euro-eremuaren aldean lehiakortasuna berreskuratzeko helburuarekin. % 0ko lurzorua du, eta % 2ko muga.

Uste dugu neurri hori ez dela nahikoa HEHko etxebizitza-politikaren ondoriozko etxebizitza problematikari aurre egiteko. Horretarako, funtsezkoa da **etxebizitzarako eskubide subjektiboa** bermatzea, higiezinekin loturiko espekulazioari aurre eginez, HEHko hiri handietako hainbat auzoren gentrifikaziorako eta turistifikaziorako joera geldituz, eta etxegabetzeak bertan behera utziz. Premiazkoa da behar duten pertsona guztiek etxebizitza baldintza duinetan izango dutela bermatzea, parke publikoa nabarmen handituz horretarako.

Arazoi horregatik, LABen langile guztiontzat eskuragarri eta duina borrokatzeko kanpaina bat abiatu dugu, eta salaketa eta mobilizazio ekimenez gain Nafarroako Gobernuak proposatu duen etxebizitza legearen moldaketetan eta Gasteizko gobernutik bultzatzen ari den etxebizitzari buruzko itun sozialean eragiteko proposamenak sortzen ari gara²⁴.

Enplegua

- Energiaren prezioen igoerarekin lotutako arazoengatik gertatzen diren kaleratzeak eta enpleguen kalitate-galera justifikatu gabekotzat hartuko dira.

Garrantzitsua da azpimarratzea neurri honek zehazten duela **Ukrainako inbasioarekin** erlazionatutako arazoengatik diru-laguntza zuzenak jasotzen dituzten enpresek eta lanaldi-murrizketak edo kontratuen eteteak ezarri dituzten enpresek baino ezingo dutela alegatu kostu energetikoen handitzea kaleratze objektiboak justifikatzeko. Horrela, neurri honen eragina komunikabideetan zabaldu dena baino azalekoagoa izango da.

Zentzu horretan eta **LABen Programa Sozioekonomikoan**²⁵ esan bezala, defendatzen dugu kaleratzeen handitzea eta enpleguaren kalitatearen galera koiunturalak ez direla, eta beraz, ezin zaiela aurre egin aringarriak eta kontziliaziozkoak diren politika publikoen bidez.

Horregatik da funtsezkoa banaketa hirukoitza - enpleguarena, aberastasunarena eta zaintzena -, eta horregatik aldarrikatzen ditugu asteko lanaldia 30 ordura murriztea eta hileko gutxienezko soldata gordina 1.400 eurokoa izatea, 14 ordainsaritan (Euskal Herriko batz besteko soldataren %60aren erreferentziari helduz). Era berean, aldarrikapen hauek patronala bultzatzen ari den soldata-debaluazioari aurre egiteko eta sektore eta enpresetan lan baldintzak hobetzeko borroka soziosindikala indartzearen eskutik datoz.

2.2 Hego Euskal Herrian hartutako neurriak

EAEko eta Nafarroako eskumenak mugatuak direla, baita energiari dagokionean ere, argi ikus daiteke bi arau nagusitan xedatutakoaren arabera: "Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa" eta "Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Kontzertu Ekonomikoa".

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluari, zehazki 31 bis eta 32. artikuluetan, xedatzen da hurrenez hurren Nafarroak Espainiako Estatuak erabakitako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko dituela Energia Elektrikoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren salbuespenetan.

²⁴ Informazio gehiago hemen: <<https://web.lab.eus/abiatu/category/etxebizitza-eskubidea/>>

²⁵ LAB. Programa sozioekonomikoa, 2021. Eskuragarri: <<https://www.lab.eus/euskal-herriko-trantsizio-ekosozialista-eta-feministarako-programa-sozioekonomikoa-aurrezte-dugu/>>

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunak²³ quater artikuluan, 26. artikuluan eta 33. artikuluan ezartzen duenez, Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zerga, Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga bereziak, hurrenez hurren, itundutako zergak dira eta Espainiako Estatuak une bakoitzean ezarritako edukizko eta formazko arau berberak izango dituzte.

Hortaz, Madrilen zehazten diren politikekiko erabateko menpekotasunaren ondorioz, Aldundiek eta Nafarroako Gobernuak hartutako neurriak mugatuak dira, eta kasu askotan HEHko zerga-araubidea Espainiako gobernuak zehaztu dituen aldaketa berriekin harmonizatzeke helburua dute, maila handiago edo txikiagoan eta tokiko borondate politikoaren arabera.

Nafarroako 2/2022 Legegintzako Foru Dekretua

Apirilaren 13an onartutako Foru Dekretu horren hitzaurrean bertan jasotzen denez²⁶, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan premiazko neurriak hartzen dituen 6/2022 Errege Lege Dekretuak hasiera batean 2022ko apirilaren 30ean amaitzen ziren sektore elektrikoaren zenbait zerga-neurriren indarraldia luzatu du. Beraz, aurreikusitako aldaketak zerga-kontuekin lotuta daude funtsean.

- Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren etenaldia 2022ko ekainaren 30era arte luzatzea.
- Data horretara arte, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa murriztua aplikatzen jarraituko da, %21etik %10era. Tasa hori faktura elektrikoaren osagai guztiei aplikatuko zaie, 10 kW-eko potentzia finkoa gainditzen ez duten kontratueterako.
- Aurreko murrizketa horniduraren tentsio-maila eta kontratazio-modalitatea edozein izanda ere aplikatuko da, fakturazio-aldiaren azken egunaren aurreko hilabete naturalari dagokion eguneko merkatuaren batez besteko prezio aritmetikoa 45 €/ Mwh baino handiagoa denean.
- Zerga horiek jaitsi egingo zaizkie bonu soziala jasotzen duten elektrizitate-hornidurako kontratuen titularrei, baldin eta gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan badaude, handizkako merkatuko elektrizitatearen prezioa edozein dela ere.

Arabako Foru Aldundiaren 7/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua

Apirilaren 26an aurkezturiko Dekretua²⁷, otsailaren 1eko 1/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren aldaketa onartzen duena, zeinak, aldi berean, energiaren arloko zerga-neurriak eta beste zerga-neurri batzuk onartzen baititu.

- Ekainaren 30era arte luzatzea Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ehuneko 10eko zerga-tasaren aplikatzea, energia elektrikoaren EBren baitako entregei, inportazioei eta erosketei.
- Elektrizitatearen gaineko Zerga Bereziaren %0,5eko tasa mantentzea.
- Energia Elektriakoaren Ekoizpenaren Balioaren gaineko Zergaren etenaldia luzatzea.

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2/2022 Foru Dekretu Arauemailea

Apirilaren 5ean onartutako Dekretu honetan jasotzen denez²⁸, Bizkaiko lurralde historikoari lotutako zergadunek zerga-betebeharrak behar bezala betetzea zailtzen duten egungo krisi energetikoaren ondorioak arintzeko neurri fiskalak ezartzen dira.

26 Informazio gehiagorako: <<http://www.lexnavarra.navarra.es/detalle.asp?r=54723>>

27 Informazio gehiagorako: <https://www.araba.eus/botha/Boletines/2022/051/2022_051_01105_E.pdf>

28 Informaziogehiagorako: <https://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2022/04/06/1-301_eus.pdf?hash=45c4c96a2eb94e7c4fbf3ab00dbaa7af>

Testuaren hasieran eszenatoki globalaren analisi labur bat egiten da, lehen paragrafoan hau adierazten delarik: “Otsailean Ukrainako Gerra lehertu zenean, bete-betean eragin zuen gure lurraldean, Euskadiko enpresa askoren gaitasuna eta lehiakortasuna murriztuz”. Hemen ikus daitekeenez, zerga-politikaren plangintza bideratzen duen kezka gehienbat ikuspegi enpresarialarena da. Horrela, aurreikusitako aldaketa nagusia honako hau da:

- Norberaren konturako profesionalen, mikroenpresen eta enpresa txikien zerga-zorrak geroratzea, jokoaren gaineko zergetatik eratorritakoak barne, baldin eta zor horiek borondatezko epean aurkeztu eta ordaintzeko epea 2022ko apirilaren 1etik uztailaren 31ra bitartean amaitzen bada, bermerik jarri gabe eta berandutze-interesen sortzapenik gabe.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 1/2022 Foru Dekretua-Araua

Apirilaren 5eko Dekretua²⁹, Ukrainaren inbasioaren, prezioen igoeraren eta egungo krisi energetikoaren ondoriozko eragin ekonomikoa arintzeko premiazko zerga-neurriak onartzen dituen. Hauek dira neurri nagusiak:

- Jarduera ekonomikoak egiten dituzten PFEZren zergadunen eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari lotuta ez dauden higiezinaren errentamenduengatik kapital higiezinaren etekinak lortzen dituztenen zerga-zorren zatikapen berezia, baita mikroenpresen eta enpresa txikien zerga-zorrenak ere, bermerik eman gabe eta berandutze-interesak sortu gabe, jokoaren gaineko zergei dagozkienak izan ezik.
- Jarduera ekonomikoaren etekinak lortzen dituzten pertsonak PFEZn 2022ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan zatika ordaintzetik salbuestea.

Aurrez aurkeztutako arau-aurreikuspenen arabera, HEHko administrazioek gutxienez Espainiako gobernuak aurreikusitako datu berberak dituzten aitopren- eta sarrera-ereduak onartu eta likidazio-aldi bakoitzerako epeak ezarri besterik ez dute egingo, ez direnak izango Espainiako Estatuak ezarritakoen oso bestelakoak.

Aldundiek aplikatutako neurriak bizitzaren garestitzeari aurre egiteko nahikoak ez izateaz gain, bereziki deigarria da Bizkaiko Foru Aldundiaren argudioa, energiaren prezioen igoera handiak eragindako arazoak **Bizkaiko enpresen lehiakortasunari** eta nazioarteko merkatuetan egiten dituzten inbertsioei soilik eragiten diela adierazten baitu.

Bizkaiko 2/2022 Foru Dekretu Arauemailearen testuaren arabera, egungo krisiaren gako ekonomiak maila globalean jasaten duen energia- eta lehengai-defizita da. LABek egiten duen analisia guztiz bestelakoa da.

Arazoaren muina ez dago **planetaren muga biofisikoetan**, baizik eta interes pribatuak defendatzeko inbertsio publiko izugarrietan, ingurumenaren harrapari eta sozialki bidegabea den ereduari eusteko funtzioa dutenak. LABentzat, naturaren, pertsonen eta Herrien eskubideek izan behar dute EHko politiken lehentasuna, eta ez enpresen nazioarteko lehiakortasuna.

Foru Dekretuak egin diren bezala, eta aintzat hartuz HEHko administrazioen eskumen mugatuak politika publikoaren planifikaziorako, Aldundien aldetik ez da proposamen nabarmenik aurkitzen energia-oligopolioek eta nazioarteko inperioek ezarritako bizitzaren garestitze sistematikoaren aurrean euskal langile-klasearen eskubideen defentsan aurrera egiteko.

²⁹ Informazio gehiagorako: <<https://www.gipuzkoa.eus/documents/2456431/3920212/DFN+1+2022.pdf/71698381-4d43-fe96-00ff-c967261cfe9b>>

3. EREITEN JARRAITZEKO BORROKAK

Eredu politiko eta sozialaren eraldaketarekin konprometituriko sindikatu gisa, energiaren auzia abiapuntu Euskal Herrian ematen ari den bizitzaren garestitzeaz hausnartzeak bide interesgarriak irekitzen dizkigu. Zentzu horretan, ezinbestekoa da egoera sozialari erantzuteko premia neurriek eta egiturazko aldaketen aldeko borroka uztartzea, sistemaren aldaketa erradikala ahalbidetzeko. Euskal Herriaren **burujabetza energetikorako** estrategien eraikuntzari begira, borrokak zabaltzen jarraitzeko interesgarriak diren zenbait gai identifikatu ditugu.

3.1 Herrien aldeko zerga sistema

Langileon ohiturak eta premiak efizientzia hobetzeko eta energia-eskaria eguneko eta asteko une ezberidnetan banatzeko aldatzen badira argindarraren ordainagiria merkeagoa izango dela esaten duen argudioak, nahiz eta neurri batean jendartearen balioak eta ohiturak aldatzea eragin dezakeen, ez ditu kokatzen beharrezkoak diren egiturazko neurriak. Kontrara, langileen bizkar gainean uzten du ardura, konglomeratu handien poltsikotan irabaziak metatzen dituen sistemak bere horretan jarraitzen duen bitartean.

Agerikoa da aldarrikatzen dugun trantsizio ekosozialista eta feministak aldaketa kultural bat eta bizi-ereduen aldaketa beharrezko dituela ere. Horregatik, garrantzitsua da euskal langile klase bezala prest egotea gure eguneroko bizitzan eta bizi garen komunitatean eragina duten aldaketei eusteko, izan ere, garbigailua jartzeko antolatzeak ere badu lotura zainzak gure artean antolatzeko ereduarekin.

Finean, inoiz ez dago sobera hurrengoa azpimarratzea: egiturazko egoera aldatzen hasteko, beharrezkoa dela inposatzen diguten **arrazaren eta sexuaren nazioarteko lan banaketaren** ondorioz dagozkigun lanen eta funtzioen eraldaketari eustea. Emakumeen* erantzukizun eksklusibo gisa ezarritako zaintza-lanek ekonomikoki mendekoak eta sozialki ikusezinak bihurtu gaituzte, eta emakume* migratuak eta arrazializatuak, funtzionalki anitzak, eta heterosexualitatearen erregimen politikotik kanpo bizi garenak gara zapalkuntza ardatzen elkar-gurutzaketaren ondorioak gogorren pairatzen ditugunak.

Egungo sistema kapitalistaren abiapuntuan **heteropatriarkatua** aurki daiteke, eta horrek bere garapen osoa baldintzatu du.

Hala ere, hainbat gobernu-ordezkarik proposatutako portaera-aldaketa horiek sakeoan eta esplotazioan oinarrituriko sistema batek mugatzen ditu. Beraz, **aberastasunen, enpleguen eta zaintzen banaketan** egiturazko eraldaketarik ez badago, ezta subiranotasun politikoa gauatzeko beharrezkoak diren gaitasunak aitortzen ez badira ere, aldaketa horiek ez dira nahikoak.

Horren ordez, oligopolio elektrikoaren negozioa eta faktura puztuen kausak jo puntuan jartzen dituzten sakoneko neurriak ez dira iristen. Garatzen ari diren politikek "partxeak" eskaintzen dituzte energiaren bidezko sarbidea ukatzen duen prezioak ezartzeko sistema bati eutsiz.

Proposaturiko azken neurrietan aurki dezakegun adibideetako bat da, esaterako, neurriak fakturan karbono-bonuaren inpaktua minimizatuko tresna bezala aurkezten direla, baina kontuan izan gabe parez pare dugun kolapso klimatikoak zeharkaturiko testuingurua. Beraz, bada muga mehe bat hainbat eta hainbat pertsonak beharreko duten etxeko argindarraren kontsumoaren kostua murriztaaren eta erregai fosilak ezkutuan diruz laguntzearen artean.



GURE APUSTUAK:

- ✓ Hego Euskal Herriak, Espainiar Konstituzioko 135. artikulua eta Aurrekontu Egonkortasunerako Legea indargabetzea eskatzen dugu.
- ✓ Elektrizitate sorkuntzarako teknologia bakoitzaren kostuen auditoria egitea, horietako bakoitza modu proportzionalan eta orekatuan zenbatu dadin eta elektrizitatearen prezioa benetako kostuak kontuan hartuz zeheaztu dadin, eta ez teknologia garestienaren kontuak.
- ✓ Prezioa zehazteko sistema "marjinalistarekin" amaitzea, eta elektrizitatearen prezioa gas naturalarenetik deslotzea.
- ✓ Merkatu energetikoan esku hartzea, prezioen kontrolerako eta mugatzerako mekanismoak sortuz.
- ✓ Gasaren prezioaren mugatzeari dagokionez, ez dezala 30 €/Mwh gainditu.
- ✓ Aurrekontu eta Zerga politika berri bat ezartzea, larrualdu klimatikoaren testuingurua kontuan hartzen duena baina erregai fosilak ezkutuan diruz lagundu gabe. Besteak beste Kapital errete %1 eta %10 arteko errekaragoa, Elkarteen zergaren kenkariak ezabatu eta %35eko tipo nominala ezarri eta PFGZn kapitalaren errete %10 errenten trataera bera eman zein gehienezko tipoa %60ra igotzea proposatzen dugu.
- ✓ Energiarako gizarte tarifa bat ezartzea, gainerako prestazio sozialekin batera, berdintasun soziala lortzen eta bizitzeko beharrezkoak diren gutxienezko elektrizitatea, ura eta bestelako hornikuntza bermatzen lagunduko duena. Neurri honek aurre egin beharko lioke bonu-sozialak eta bonu-termikoak gizarte-bazterketaren eta pobrezia energetikoaren arteko lotura estuari heltzeko erakutsi duten eraginkortasun ezari.

3.2 Sektore elektrikoaren kontrol publiko eta soziala

Hegemonia neoliberalerako azken 30 urteetan sektore elektrikoa berregituratu da munduko leku askotan. Hainbat enpresa desintegratu dira, enpresa elektriko estatal asko korporatibizatu dira eta gehienak pribatizatu dira. Araubide erregulatzaile berriak sortu dira handizkako eta txikizkako merkatuak kudeatzeko eta transmisio- eta banaketa-zerbitzuen tarifak zehazteko.

Aldaketa global hauek oinarritzko hiru helbururekin ezarri dira: lehiakortasuna handitu, estatuak elektrizitatearen produkzioan eta hornikuntzan zuten papera gutxitu edo ezabatzea, eta prezioak merkatuaren arabera zehaztea. Hitz gutxitan, **liberalizazioa, desregulazioa eta malgutasuna.**

Frantzia, Alemania edo Italia bezalako herrialdeetan jardun sozioekonomikorako eta burujabetza energetikorako estrategikoa den sektore energetikoetan parte hartze publikoa handia den artean, Naturgy Fundazioak argitaraturiko informe baten arabera 2020 urtean HEHan kontsumituriko kilowatt-orduaren %90 bost enpresa hautakoren baten esku zegoen: **Endesa, Iberdrola, Naturgy (lehen Gas Natural), EDP edota Viesgo-Repsol**³⁰.

Oligopolio energetikoaren beste aurpegi bat ekoizpen gaitasunari loturikoa da: 2020 urtean Endesa, Iberdrola eta Naturgyren artean gainontzeko enpresa guztiek baino elektrizitate gehiago sortu zuten. Kontuan izan behar da gainera aurretik aipaturiko bost enpresek banaketa sareak ere kontrolatzen dituztela: Espainiar estatuan dauden 29,5 milioi hornikuntza puntuetatik, 26,3 dira aipatu 5 enpresenak, 25.000 milioi euroko mozkinak banatu dituztenak euren artean azken bost urteetan.

Iberdrolaren web orrian bertan ezagutzera ematen da enpresak 30.000 milioi euroko inbertsioak lortzeko 175 proiektu aurkeztu dituztela Next Generatio EU programara³¹. Endesak 122 proiektu aurkeztu asmo ditu, 23.300 milioi euro mobilizatzeko.

30 Informe 2020. El sector eléctrico español en números. Eskuragarri <<https://www.fundacionnaturgy.org/publicacion/informe-2020-el-sector-electrico-espanol-en-numeros/>>

31 Informazio gehiagorako: <https://www.iberdrola.com/conocenos/next-generation-eu>

Naturgyk bere aldetik 14.000 milioi euroko "inbertsio aukerak" ditu hurrengo urteetan programa horren baitan garatzeko ehun proiektu ingururen bidez. Repsolek 31 proiektuko txosten bat du esku artean, 6.359 milioi eurori lotuak³².

Europar funtsetatik eratorritako irabaziez gain nazioarteko zuzenbidearen esparruan arbitraje-auzitegien bitartez lortutako irabaziak ere deigarriak dira. Zentzu horretan, Espainiar estatua sinatzaileztat duen Energiaren Gutunaren Tratatu (EGT)³³, oztopo garrantzitsua da HEHan elektrizitatearen amaierako prezioa jaisteko benetako neurriak hartzeari begira.

Kezkagarria da enpresek estatuen aurka aurkezturiko 143 auzibideetatik, 50 Espainiar estatuaren aurkakoak izan direla. Hauetatik 23 ebatzi dira eta 19 kapital transnazionalaren aldekoak izan dira. "Stop the ECT" plataformaren arabera, horietatik 17ri kalte-ordain gisa ordainduriko diru guztiak baturik, 951 milioi euroko kalte-ordainei buruz hitz egin behar dugu, zeinak besteren artean euskal herriko langileok ere ordaindu ditugun³⁴.

Tarteko dagoen diru publikoaz eta auzibideetatik gehienak berriztagarrien mugatzearekin lotuta egoteaz gain, Itun hau arbitraje-auzitegien esparruan sartzen da. Inbertsoreen eta Estatuaren arteko gatazkak bideratzeko sistema bat da hau justizia pribatizatzen duena eta herrialde eta nazioen gaitasun legegilea mugatzen duena. HEHan egoera hori are larriagoa da, izan ere subiranotasunik gabe ezin dugu erabaki esparru horietan parte hartuko dugun ala ez.

Erakusgarria izateagatik ezin da ahaztu gainera, Iberdrolak 1.500 langile inguru **kaleratze** proposatu zuela hitzarmen-kolektiboaren negoziazioaren baitan, plantillaren %15, eta baita lan baldintzak murriztea ere, hala nola, enpresako langileentzako doako argi-tarifa ezabatzea. Iberdrolaren mozkinak handitzen diren bitartean, langileon eskubideak lotsagabeki murrizten dira.

Orokorturiko pribatizazioaren aurrean, LABetik **burujabetza politikoaren** alde egiten dugu, energiari loturiko sarbide, kontrol eta kudeaketa publiko eta soziala izateko baldintza gisa. Horregatik ulertzen dugu Euskal Herriko langileria burujabetzen eraikuntza prozesuen alde egiten duen proiektu politiko baten eraikuntzan protagonista izan behar dela. Burujabetza energetikorako, elikadura burujabetzarako, hezkuntzarako, zaintzarako zein bizitzako beste esparruetarako zein eredu nahi dugun pentsatu, diseinatu eta kudeatzeko aukera dugun eredu bat eraiki eta borrokatzeko aukera ematen digun prozesu bat.



GURE APUSTUAK:

- ✓ Sektore energetikoaren kontrol publiko eta soziala, energia eskubide bat izan dadin eta ez merkantzia.
- ✓ Energia burujabetzan aurrera urratsak emateko burujabetza politikoa, honekin lotura duten eremuetan aurrera urratsak emateko, hala nola, Lan Harremanen Euskal Esparrua eta Babes Sozialeko Euskal Esparrua³⁵.
- ✓ Sektore energetikoan enpresa pribatuak duen pisua murriztea, eta jabetza eta plangintzatze publikoa, munizipala, tokikoa eta sozialki justua kokatzea trantsizio energetikoaren ardatz gisa.

32 Informazio gehiagorako: <<https://www.publico.es/economia/iberdrola-eleva-aspiracion-fondos-europeos-ofrece-movilizar-30000-millones-175-proyectos.html>>

33 EGT 1994ko abenduaren 17an Lisboan sinatutako nazioarteko akordioa da, eta 53 herrialdek sinatu dute. Horri esker, enpresa transnazional eta inbertitzaileek herrialde bati demanda jar diezaiokete beren interes ekonomikoen aurkako legeak egin direla uste badute, baita interes horiek planetako klimari eta tenperaturari eusteko Parisko Hitzarmenaren aurkakoak badira ere.

34 Informazio gehiagorako: <<https://energy-charter-dirty-secrets.org/es/stop-the-ect/>>

35 Lan Kodea eta Babes Sozialrako proposamenak aurkeztu ditugu berriro dugun Programa Sozioekonomikoaren markoaren baitan: <<https://www.lab.eus/euskal-herriko-lan-kodea-eta-gizarte-segurantzako-lege-proposamena-aurkeztu-dugu-gasteizko-legebiltzarreko-lan-eta-enplegu-batzordean-enpleguaren-zaintzaren-eta-aberastasunaren-banaketa-ardatz/>>

- ✓ Kapitalaren kontsumo energetikoaren deshazkundera, hau baita baliabide energetiko gehien kontsumitzen dituen. Ekonomiaren birtokiratzearen aldeko apustu baten eskutik egitea.
- ✓ EGTan funtsezko aldaketak egiteko 53 estatuek aldeko bozka beharrezkoa dela kontuan izanik, Euskal Herri osoa Itun honetatik ateratzea eskatzen dugu, Errusiak 2009an eta Italiak 2015ean egin bezala.
- ✓ Gehienezko soldata ezartzea, gutxieneko soldatarekiko 1:3 proportzian. Aberastasuna banatzeko, eta Euskal Herriaren aztarna ekologikoa murrizteko tresna litzateke.

3.3 Trantsizio energetikotik trantsizio ekosozialera

Trantsizio energetikoa kokatzen da konponbide gisa, baina gure aburuz beharrezkoa da eztabaida honetan sakontzea ikuspegi sindikal eta soberanista batetik. Trantsizio energetikorako eredu guztiak ez dira berdinak, eta denek ez dute Herrien eta naturaren arteko eko-inter-dependenziaren ikuspegia aintzat hartzen.

Trantsiziorako eredu nagusiak edo hegemonikoak petroleoa bezalako erregai fosilen eta planetan finituak diren bestelako materialen (telurioa, zilarra edo aluminioa) kantitate handien kontsumoan oinarritzen dira, hau zalantzan jarri gabe. Gainera, material kritiko horietako askoren eskuragarritasuna eta banaketa logika inperialista eta kolonialetan oinarritzen dira Bruselak eta europar funtsek ezarritako ereduari jarraiki.

Gainera, trantsiziorako eredu hegemonikoek elektrizitatearen sorkuntza jartzen duten erdigunean, baina Energiaren Euskal Erakundearen arabera euskal langileria gas natural konbentzionalarekiko edo zentral termikokiko menpekoagoa da, kontsumo elektrikoarekin alderatuz³⁶

Zentzu honetan, garrantzitsua da kontuan izatea energia elektrikoaren Itzulera Energetikoaren Tasa (Tasa de Retorno Energético gaztelera) txikiagoa dela, hau da, inbertituriko eta sorturiko energiaren arteko aldea txikiagoa dela. Honek esan nahi du erabateko elektrifikazioa ez dela bideragarria, eta baita kapital transnazionalari loturiko sektoreek bultzatzen duten uestezko trantsiziorako erregai fosiletan oinarrituriko energia kantitate handiak beharrezkoak direla.

Horregatik LABetik azpimarratu nahi dugu sektore elektrikoaren eta bere oligopolioen aberastasun metaketa bermatzeko kontzentratutako energia kantitate handiak sortzera bideraturiko trantsizio energetikoa ez dela posible den bakarra, ezta Euskal Herrirako nahi eta behar duguna.

Energiaren auziak duen egiturazko izaeratik, trantsizio ekosozialista eta feminsita baten alde egiten dugu. Gure Programa Sozioekonomikoan bizi dugun krisi ekosozialari aurre egiteko trantsizio hori zehazteko neurriak jasotzen ditugu, Lan Kode eta Gizarte Segurantzako Euskal Sistemarako proposamenak barne.

Egungo eredutik eredu sozioekonomiko berri baterako trantsizioa ezinbestekoa dela sinetsita gaude. Beharrezkoa ikusten dugu trantsizio honi buruzko eztabaida nazional bati heltzea akordioetara heldu ahal izateko. Baina botere faktikoek paradigma kapitalistari loturik jarraitzen dute, planetaren muga biofisikoak afera teknikoak bailiran ulertzen dituztelarik.

36 EEE. Energia Egoeraren Behatorkia. 2022ko otsaila.



— GURE APUSTUAK: —

- ✓ Trantsizio ekosozialista eta feminista, lehentasunezko gai hauek oinarri: erabakitzeko eskubidea, gehiengo sozialen prekarizazio eta pobretzearen arrazoi egiturazko eta sistemikoei aurre egitea, lan guztien aitortza eta banaketa, pentsio duinak bermatzeko sistema propioa eta euskal zaintza sistema publiko-komunitarioa.
- ✓ Eraldatzailea eta erradikala den eredu sozioekonomikoa ezartzea, BPGaren etengabeko hazkunderan eta kapitalaren mozkinetan oinarrituriko egungo eredu biozida ordezkatzen duena eta helburu duena bizitza duin, aske eta oso bat bermatzea pertsona guztientzat.
- ✓ Eraldaketa ekonomikoa eta langileen eskubideak lotzeko **bidezko trantsiziorako batzordeak** sortzea, langileen eskutik egungo eredu energetiko eta produktiboari buruzko lan pedagogikoa egitearekin batera, lan zentroi begirako trantsizio justurako proposamen zehatzak egingo dituztenak, kokatuak dauden herri edo eskualdeetako baldintzak aintzat hartuz.
- ✓ Oinarrizko zerbitzuen kontrol sozial, lurraldetu eta publiko-komunitarioa bermatzea, (bir)publikazio prozesuak bultzatuz kudeaketa eta parte hartze publiko-komunitario erreala hedatu dadin.

ONDORIOAK: ENERGIA GUZTIONTZAT!

Paradigma aldaketa bat behar dugu. Euskal Herrian lana eta energiaren produkzioa, banaketa eta kontsumoa antolatzen duen eredu sozioekonomikoaren aldaketa erradikala. Azpimarratu dugun bezala, energiaren prezioaren igoera ez da afera koiuntural bat, baizik eta aberastasuna metatzeko desjabetzean oinarritzen dena eredu kapitalistaren etengabeko berrantolaketaren ondorioa.

Ondasun komunenen espolio harrapariarekin lotzen den dejabetzea, gizakion lanaren esplotazioan oinarritzen dena, eta Herrian autodeterminazio eta burujabetzaren sakeo sistematikoaren bidez sakontzen dena. Finean, kapitalismoa iraunarazteko beharrezkoa den oinarri bizi osoaren metatzea, kritikik krisira doan eredu baten. Hau da, krisiak ezohiko momentuak izatetik urrun, ereduaren egiturazko ezaugarri dira, honen iraupenerako baldintza.

Horrela, Euskal Herrian pobretze energetikoaren aurka borrokatzea ezin da mugatu argindarraren faktura murrizteari edo langileen kontsumo energetikoa murrizteari buruzko eztabaida batera. LABetik bizitza xurgatzen duen eredu hau errotik konfrontatzen duten estrategien alde egiten dugu, eta beraz, pertsona guztientzat lan eta bizi baldintza duinak lortzeko tresnak emango dizkigutenak.

Hazkunderan eta desberdintasun sozialetan oinarritzen den geopolitika neoliberalaren aurrean³⁷, lurraldea oinarri duten herri boterearen eraikuntza prozesu demokratikoen alde egiten dugu, Herri gisa dagokigun autodeterminazio eskubidea gauzatzera bidean. Kapital transnazionalari mugak jartzea ahalbidetzen duten prozesuak, energia bezalako ondasun komunenen arpilatzean eta giza-lanaren esplotazioan oinarritzen den eredu makroekonomiko biozida baten parte den sistema produktiboaren eraldaketarantz ekitearekin batera. Ezin dugu, eta ez dugu nahi mozkinak sortzeko eta metatzeko dinamika mugagabearekin jarraitu, gorputz, Herri eta lurraldeak sakeatzea eta desjabetzea oinarri hartuta.

Nekropolitikaren hedapena EHn ditugun kontsumo-estandarrak aldatzea premiazkoa dela adierazten digun mezu kezagarria da. Bizi-eredu berriak planteatu behar ditugu, eta tinko lan egin behar dugu Herrien subiranotasunaren alde, behetik eta ezkerretik eraikitako ekonomia zirkularrak eta nazioarteko harremanak garatzeko gai den aldetik.

37 NBEren Adituen Taldearen Seigarren Txostenak adierazten du klima-kolapsoa saihesteko modu bakarra kapitalismotik eta etengabeko hazkunderan oinarritutako eredutik aldentzea dela. Informazio gehiagorako: <<https://cxtx.es/es/20210801/Politica/36970/IPCC-capitalismo-insostenible-informefiltracion-cambio-climatico.htm>>

Energia ondasun komun bat da eta beraz pertsona guztien eskubidea, ez merkantzia bat. Energiarako sarbidea ezin da pertsonen errentak edo diru-sarrerak baldintzatua egon baizik eta pertsonen beharretan oinarrituta. Gero eta anitzagoak diren beharrak. Horregatik **eredu energetikoaren funtzio soziala** defendatzen dugu inperioen eta kapitalaren artean negoziaturiko eredu pribatizatzailaren aurrean.

Euskal Herrian sortu eta erabiltzen den energiaren kontrol publiko-komunitario eta sozialaren alde egiten dugu. Horretarako adosturko bideorri bat behar dugu, sor dezakegun energia oinarri hartzen duena eta langile jendearen lehentasunak oligopolio energetikoaren aurretik jartzen dituena.

LABen defendatzen dugun trantsizio ekosozialista eta feministaren baitan Euskal Herrian ematen ari den bizitzaren garestitzearen aurkako borroka lotuta dago kutsadura murriztearekin baina baita aberastasuna, lanak eta zaintzak banatzearekin ere. Zerumuga estrategiko hori oinarri, neurri soziosindikal zehatzen alde egiten dugu hemen eta orain euskal langileriaren bizi baldintza objektibo eta materialak bermatuko dituztenak.

Oraindik bide luzea dago egiteko, baina ez gara zerotik abiatzen, eta sinetsita gaude LABetik garatzen dugun borroka soziosindikala lantokietarako, auzoetarako eta herrietarako tresna dela. Eztabaidak zabaldu eta eraldaketa askatzaileekin konprometituriko euskal langileriarentzat alternatiba urgenteak ikustaraztea da gure helburua. Beraz, Euskal Herrian bizi nahi ditugun bizitzak loratzeko borrokek ereiten jarraitzeko gonbita da hau.

